

Shu Otero



Hitza eta figura

María Bacilio idazlea, irakaslea eta filosofian doktoregia da Parisko Goi Mailako Arauzko Eskolan, lagun min bat izateaz gain. Duela hamar urte eza-gutu genuen elkar Mexikoko Unibertsitate Na-zional Autonomoko espazio irekietan. Bere dok-toretza-tesiaren harira, bere ikerketaren emaitza politikoak indartuko dituen frontispizio bat bate-ra sortzeko proposamena egin zidan. Ikerketa ho-rretan, justizia berriak lantzen ditu emakumeen aurkako muturreko indarkeria gertatzen den bi testuingurutan: zehazki, senitarteko desagertuen bilaketan narkokapitalismoa borrokatzen duten amak Mexikon, eta legez kanpoko meatzaritzak eragindako bortxaketa masiboetatik zaindu eta sendatzeko prozesu kolektiboak Kongoko Erre-publika Demokratikoan. Artikulu honetan, dialo-go moduan, partekatu nahi izan dugu frontispizio bat sortzeak nola ekarri digun haien ‘tradizioa’ ezagutzen saiatzea, eta testu-lan bat irudi baka-rrean laburbiltzeak dakartzan ondorio etiko, po-litiko, teologiko eta esoterikoen inguruan pentsa-tzea.

Leviatanak eta biopolitika

M.: Askok irakurri dute, edo zeozer entzun, Thomas Hobbes teoriarari ingelesak idatzitako *Leviathan* testuari buruz, 1651n argitaratua. Liburu hori ezinbestekoa bilakatu da estatu modernoaren inguruko teoriagingintzan, bertan Hobbesek subiranotasun nazionalaren boterearen kontsolidaziorako oinarri teorikoak ezarri baitzituen. Testu-edukiaz gain, bada-go, bere doitasun piktorikoarengatik, hala nola bere dentsitate politiko, teologiko eta esoterikoagatik, atentzioa ematen duen beste elementu bat: frontispizioa. Pentsalari eta ilustratzaileei ez zaie oharkabeen pasa.

Giorgio Agamben filosofo italiarrak, *Stasis. La guerra civile come paradigma politico* liburuan, Abraham Bosse artistak sortu zituen bi frontispiziotik gordetzen duten potentzia esoterikoaren inguruan hausnartzen du, Hobbesen gidaritzapean *Leviathan* irudi bakarrean laburbiltzeko helburuarekin. Baina baita garaiko subiranoari, Karlos II.a, gustua egiteko esperoan ere. Sortu ziren bi aldaerak itsas-munstroaren gorputza bete eta egituratzen duten aurpegi eta gorputzen posizioan desberdintzen dira. Gogoratzeko, jendetza desegina subiranoaren gorputzaren parte bada, kontratu soziala 'sinatu' duelako da. Frontispizioaren lehen bertsioan, ez dena agertzen zabaldu den liburuan baina Britainiar Liburutegian gordetako kopia bati esker ezagutzen duguna, aurpegiak irakurlearengana zuzenduta daude. Haren irakurle pribilegiatua izango zenari begiratzen diote, Karlos II.a erregeari. Guri iritsi zaigun bertsioan, *Leviathan* liburuan, gorputzek bizkarra ematen digute, munstroaren buruari begiratzen diote, hau da, subiranoari, autorearentzat errege ingelesa bera zena.

Gorputzen posizioaz gain, beste elementu batzuk ditugu aztertzeko. Adibidez, nola erabaki zuten Bosse eta Hobbesek botere eklesiastiko eta politikoa banatzea. Ezkerraldean botere mundutarra dugu, subiranoak sostengatzen duen ezpataren bitartez, eta bost ikur (hiria, koroa, kanoia, armak, estandarte eta bataila bat); eskuinaldean, botere zerutiarra, hori ere bost ikurrez (eliza, mitra, eskumikuaren izpiak, silogismo logikoen ikurrak eta elizbatzar bat). Bi aldeek Commonwealth-ari egitura ematen dioten botereak sinbolizatzen dituzte. Beste elementu adierazgarri bat da hiria nola dagoen irudikatua, hutsik, figura berezi batzuk ez ezik: guardia militarra eta bi izurrite-mediku, Erdi Aroko maskara mutur-zorrotz bereizgarriarekin. Figura horiek analisi iradokitzailea egitera daramate Agamben, botere politiko eta militarra

botere mediko eta zientifikotik banaezin bezala irudikatzen duten moduagatik, frontispizioak, Commonwealtha irudikatzeaz gain, biopolitika irudikatzen duela proposatuz. Hitz gutxitan, kontzeptu horren pean ulertu beharko genukeena, Michel Foucault filosofo frantziarrak proposatua, botere subiranoaren alderdi desberdinen bitarteko hiritarren bizitzaren eta heriotzaren administrazioa da. Ikonologiaren baliabideen (frontispizioa osatzen duten elementu guztiak) eta frontispizioaren irakurketa filosofikoaren (adibidez, biopolitikaren irudikapena iradokitzea) bateratzeari esker da gai Agamben egiten duen analisisa ikonologia filosofiko bezala izendatzeko.

Ikonologia filosofikoak Bosse eta Hobbesen frontispizioaren irakurketa eta errepresentazio berriei eman die bidea. Eduardo Cadava eta Sara Nadal-Melsió kritikariek *Politically Red* liburuan gogoratzen diguten bezala, 2020an Kadir Nelson artistak *The New Yorker* aldizkariaren azalerrako *Say Their Names* (Esan haien izenak) izendaturiko frontispizio bat sortzea erabaki zuen, *Leviathan*-en inspiratua. Baina, jainko hilkor bat ilustratu ordez, artistak George Floyd margotu zuen, polizia zuri batek eraildako afroamerikarra. Haren azken hitzak, «*I can't breathe*» (Ezin dut arnasa hartu) dei bihurtu ziren hainbat hiritan matxinada esanguratsuak pizteko. Floyden gorputzean, jendetza desegina irudikatu ordez, jendetza banandua dago irudikatua, Hobbesen arabera natur egoera daraman hori, non «gizakia otsoa [den] gizakiarentzat». Nelsonek jendetza bananduaren (edo garaituak, Cadava eta Nadal-Melsió iradokitzen duten bezala) aurpegi eta gorputzak ilustratu izanak, indarkeria arrazista eta poliziala jasan duten gorputz arrazializatuen bitartez, ederki adierazten du artista batek ikur subiranista eta biopolitiko batetik erresistentzia politikoaren ikur bat nola sor dezakeen.

Buruak eta aurpegiak

S.: Irudikatze horien arteko alderaketan gehien interesatzen zaidana ilustratzen ari diren gorputz multzoa eta boterearen (edo botereen) formulazioaren arteko harremana da, harreman horretan nolako entitate soziala sortzen duten. Bi irudiek indarkeriari erreferentzia zuzena egiten diote. Lehenengoan, mehatxu latente bezala agertzen da, gorputz-munstro horretatik jagoletza biopolitikoaren hirira kanporatua izateko arriskuan. Kontratu sozialaren ustezko onarpena pasiboki aurkezten da, botere biopolitotik haragoko existentzia bat eraikitzeko aukera ekidi-

teko prest dauden elementuek mugatua. *The New Yorker*-eko frontispiziok, ordea, indar errepresiboen ekintza bortitzen ondorio materialak erakusten ditu, baina ondorio horiek ez dira agertzen indar oldarkorren kontrako erresistentzia eta borroka gabe. Mehatxua ez da soilik potentzialki existitzen, jada aurre egin zaion eta aurre egiten jarraituko zaion errealitate bat da, eta jendetzak aktiboki parte hartzen du gatazka horretan, botere harremanak birdefinitzen saiatuz esparru sozialean.

Egitura bertikala mantentzea, burua goian, gainerako gorputza osatzen duten aurpegi eta beste elementuen multzoa azpian eta barruan, uler daiteke Leviatani berariaz erreferentzia egiteko erabaki bezala, bi irudien arteko elkarriketa sortzeko. Horrek mugak jartzen dizkio Nelsonen proposamenari, bertikalitatea eta gorputzaren antolaera, hau da, burua autoritate maximo edo ‘gubernari’ bezala irakurtzeko dugun joera kulturalarengatik. Antolaera horrek aurkezten digun kolektibitatearen irakurketa hierarkiko batera bultzatzen gaitu. Baina beste elementu batzuek ezberdintasun nabarmenak ezartzen dituzte gorputz-munstroarekin. Adibidez, aurpegi gehienak ez zaizkigu ezagunak, Estatu Batuetako erresistentzia eta borroka antirrazistaren historiaren parte dira. Lanaren izenak berak, *Say Their Names*, mugimendu horietako lelo bat jasotzen du, indarkeria estrukturalaren biktimen izenak presente izatea eskatzen duena. Errekonozimendua ez bada ere denentzat berdina (izen guztiak ez zaizkigu ezagunak), figura bakoitza argazki-artxibo batean oinarritua dago, hau da, singularitate espezifiko batean. Zentzu horretan, hausnartu beharko genuke argazkigintzaren garapenak zein aldaketa sakona suposatu duen aurpegi, gorputz edo kolektibitate bat piktorikoki irudikatze orduan.

Beste elementu garrantzitsu bat da ilustrazioak jendetza banandu askoz handiago bati egiten diola erreferentzia, matxinada eta kale-agerraldiak egiten ari zena hori argitaratu zen momentuan, 2020an. Horrela, imajina dezakegu Nelsonen frontispizioko jendetzak benetan ‘gainezka’ egiten duela Floyden gorputza kaleetako materialitatean. Bertikalitate frustratua, beraz.

Afektuak eta gorputzak

M.: Indarkeria esplizituari buruz aipatzen duzunak, nire ustez, afektuen presentzia inplizituarekin zerikusia du. Badago bat bereziki nabarmena ilustraziotan: izua. Bosse eta Hobbesek oso argi adierazten

dute haien frontispizioan jendetzak ez badu kontratua onartzen erreprimetua izango dela. Kontratua 'sinatzea', zentzu horretan, hiritarren kanporatzearen beldurraren bitartez egiten da, edozein babes juridiko galtzearena. Nelsonek, bestalde, izua esklabotza garaitik (frontispizioan agertzen dena) afrikarren ondorengo komunitateen kontra eragindako indarkeriaren bitartez erakusten du, gure garaira arte, Floyden eraiketa izanik bortxa kate hori koroatzen duena. Aitzitik, pasio tristeteei (esan, izua) kasu horretan zirkuitu laburra egiten diete Floyden gorputz barruan (eta kanpoan) sortzen diren erresistentziek. Adibide horiez gain, badaude beste frontispizio batzuk ere baimenduko digutenak afektuek dituzten inplikazio politikoak gehiago problematizatzen.

Cadava eta Nadal-Melsiók, *Politically Red* liburuan, Karl Marx eta Friedrich Engelsen *Die deutsche Ideologie* testuaren eskuizkribuko orri original bat aukeratu zuten beren lanerako frontispizio bezala. Orri horretan, bi elementu bizi dira elkarrekin: ezker aldean, Marxen eskuz idatzitako testua, eta, orri beraren eskuinaldean, Engelsen zirriborroak. Zirriborro horietan atentziora ematen duena da ez dela gorputzik agertzen, soilik aurpegiak, gizaki eta ez-gizakienak (ardiak, txakurrak, etab.). Izan ere, Cadava eta Nadal-Melsiók seinatzen dutenez, gorputz bakarrari erreferentzia ez dagoenez, jendetzak are gehiago egiten du gainezka, eta inpersonalago bihurtzen du, jendetza iraultzaile baten gertuagokoa. Baina jendetza iraultzailea, Nelsonen frontispizioko jendetza afro-ondorengoa bezala, soilik existitu daiteke pasio tristeak eraldatu badira. *Politically Red*-en aipatzen den beste elementu bat da orria zer modutan sortu zen. Autoreen arabera, idazketa eta zirriborratze prozesuan, batzuetan Marx eta Engelsen barre-algarak hain ozenak ziren gaueko ordu txikietan, ezen bizilagunak kexatu egiten baitzitzaizkion alokatzaileari. Liburu bat idazten eta haren orrietan zirriborratzen barrez aritzeko modu hori oso sintomatikoa iruditzen zait gu jada frontispizio bat sortzean bizitzen ari garenera, barrearen bitartez gainezka egiten duen pozak adiskidetasunari eta erresistentziaren irudikatze politikoari lekua egiten dioten afektuekin parte hartzen baitu. Seguruenik hori urruti dago Hobbes eta Bossek bizi izan zutenetik, subirano bati zuzendua zegoen liburu bat idatzi eta frontispizio bat ilustratzean, ez baitzait zentzugabekoa iruditzen Karlos II.a nahigabetzeari izan ziezaioketen beldurra irudikatzea. Horregatik, prozesua laguntasunak piztutako zorionetik abiatzea badirudi afektuek izan dezaketen paper erabakigarriarekin ondo parekatzen dela, pretentsio etiko eta politikoak dituen frontispizio baten sorkuntzan.

Muga eta gainezka

S.: Gorputz bakarrari erreferentzia eza aipatzen duzu, eta hori izan da gehien hausnartu behar izan dugun gaietako bat zure ikerketa lana lagunduko duen frontispizioa sortzerakoan. Gure lehen zirriborroak gorputz-forma erabiltzen zuen figura nagusi bezala, Bosse eta Nelsonen erreferentzien antzera. Gure kasuan, bi gorputz femenino irudikatu genuen, zure lana sustraitzen duten bi lurraldeak islatzeko, kontinente eta herrialdeak emakume gorputzekin ‘pertsonifikatzeko’ tradizio plastikoa (adibidez, William Blakeren *Europe Supported by Africa and America* grabatuaren erreferentzian) jarraituz eta aldi berean hori birdefinitzea bilatuz. Baina laster ikusi genuen, bi gorputz marratzen saiatzean, abstrakzio batetik abiatuta eta kolektibitate bat ordezkatzeko asmoz, ‘gorputzaren’ ideia bera oso gatazkatsua bihurtzen zitzaigula. Tranpa bat da pentsatzea gorputzaren forma neutro bat existitzen denik. Ezinbestean irudi horiek proiektatzen dutena azkenean normalitatearen eta anormalitatearen arteko mugak ezartzen dituen idealizazio bat da, naturalizatzen jarraitzen duguna. Bereziki buruan ditut gorputz tente eta ‘osoaren’ ideia kapazitistak (imajinaezina kolektibitate bat irudikatzea beso edo hanka bakarra duen gorputz baten bitartez, adibidez), eta feminitate ‘zuzen’ eta ‘biologikoaren’ inguruko ideiak, hau da, zis-normatiboak. Nelsonekin ikusten genuen moduan, argazki-artxiboaren erabilerara baliabide interesgarria izan daiteke, baimentzen baitu ilustraturiko pertsonak bere singularitatea mantentzea eta multiplizitatea idealizazio batek ez usurpatzea. Zure ikerketa prozesuaren barne egin duzun argazki lan dokumentalag lagundu gaitzake horrekin.

Gure proposamena zehazteko orduan, garrantzitsua iruditzen zait ere arreta jartzea emakume horiek inskribatuta dauden botere harremanen egiturak inplizituki eta esplizituki agertzen diren moduari, hala nola haien artean nola zirkulatzen duten afektuek. Gorputz bakarraren hertsaduratik harago eta bertikalitateari gainezka egiten dion irudi bat eraikitzeak baimendu dezake zure lanarekin elkarrizketan dauden emakumeek egun aurrera daramaten borrokaren potentzialitatea ageriko egitea. Azkenean, espero dut hemen partekatzen ditugun afektu eta hausnarketetatik ez sortzea izan behar dena markatzen duen gorputz-mapa subirano bat, baizik eta emakume horiei esker sortu diren (eta zalantzarik gabe etengabe ber-asmatuak izango diren) aukera etiko eta politikoen lekuko izango den figura.